

## Urtarrilaren 10ean **JAUNAREN BATAIOA**

### **Agurra**

Aitaren Seme maitea den Jesus Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

### **Sarrerako Oharpena**

Jaunaren Bataioaren jaia ospatzen dugu gaur. Jesus da Jainkoaren Zerbitzaria, Espirituak Gantzututako Mesias, Aitak Semetzat aitortu zuena, herri guztien salbamenaren Berri Ona iragartzera bidalia.

### **Ura bedeinkatzeko eta ur bedeinkatuz zirtatzeko ohikunea**

Senide maiteok: egin diezaiogun otoitz Jainko gure Jaunari, geure Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiliko dugun ur hau bedeinka dezan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gakizkion.

*Isilune labur baten ondoren, eskuak bildurik jarraituko du:*

**Jainko ahalguztidun betierekoa,  
ura biziaren iturri eta sorburu eginik,  
gizon-emakumeen arima garbitzeko indarra ere eman diozu,  
guk ur honetan betiko biziaren dohaina har dezagun;  
bedeinka + ezazu ur hau, Jauna,  
zurea den egun honetan indar gaitzan.  
Ur honen bidez berri ezazu guran zeure graziaren iturri bizia,  
zaindu gaitzazu gorputz-arimetako gaitz guztietatik,  
Zugana bihotz garbiz hurbil gaitezen,  
eta zure salbamina irits dezagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

*(Herria zirtatzen du, Bataio-kantu egoki bat kantatzen den bitartean)*

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala. R/. Amen.

## **Aintza**

Gora dezagun Jainkoa bihotzez, Aintza kantatuz.

## **Otoitza**

**Jainko ahalguztidun betierekoa,  
Kristo Jordan ibaiko uretan bataiatua izan zenean  
goraki aitortu zenuen, Espiritu Santua haren gainera bidaliz,  
hura zela zure Seme maitea:  
emaiezu, uretik eta Espiritu Santuagandik jairo diren  
zure seme-alabatzakoei, zure maitasunean irautea beti.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

## **Hitzaren liturgiari oharpena**

Jaunaren promesak betetzen ari dira: Jaunaren Bidaliak bere bataiokoan hasten duen misioaren hasieran agertuko zaigu gaur hori. Kristo da aukeratua, Kristo zerbitzari apala, gizon-emakume guztiei Jainkoaren seme-alabatza eta askatasuna ematen dizkiguna.

## **Lehenengo irakurgaia** (*Is 42, 1-4. 6-7*)

Isaias profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Hona, Nik eusten diodan nire zerbitzaria, atsegin zaidan nire aukeratua. Honengan ipini dut nire espirtua: berak ekarriko die zuzenbidea atzerriei. Ez da deiadarka ariko, ez du

oihuka hitz egingo, ez du kaleetan entzun eraziko bere mintzoa. Kainabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi piztua dagoen metxa ez du itzaliko. Zuzenbidea ekarriko du; ez du etsiko, ez da hautsiko, zuzenbidea lurrean ezarri arte, uharteek itxaron duten Haren legea jarri arte. Nik, Jaunak, zuzentasunez dei egin dizut, eskutik hartu zaitut; herri baten elkargo izateko, atzerri argi izateko aukeratu zaitut, itsuen begiak zabal ditzazun, giltzapetuak espexetik atera, eta kartzelako ilunbetan daudenak aska ditzazun».

### Erantzun-salmoa (Sal 28, 1-2. 3ac-4. 3b eta 9c-10)

Jau - na da gu - re Sal - ba - tzai - le - a. Gu -  
 re in - da - rra e - ta ba - ke - a.

Eman, Jainko seme-alabok, **J**aunari,  
 eman ospe eta indar **J**aunari.  
 Eman ospe Jaunari bere izenaren **e**derrez,  
 jauretsi Jauna apaindur**i**a deunez. R/.

Horra Jaunaren mintzoa ur **g**ainean,  
 Jauna ur ugarien **g**ainean.  
 Jaunaren mintzoa **i**ndartsu,  
 Jaunaren mintzoa **o**spetsu. R/.

Jainko itzalgarriaren hostotza **d**urundan,  
 Haren jauretxean denek diote: Gora!  
 Eseri da Jauna uholde **g**ainean,  
 Jauna errege eseriko bet**i**eran. R/.

**Bigarren irakurgaia** (Eg 10, 34-38)

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Pedrok honela esan zuen: «Garbi ikusten ari naiz, Jaungoikoak ez duela bereizkeriarik egiten; baizik eta onartzen duela, Haren beldur dena eta zuzen dabilena, edozein herritakoa dela ere. Berak bidali zien Israelgo seme-alabei bere hitza, eta guztien Jauna den Jesu Kristok ekarriko zuen bakearen berri ona eman zien.

Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek erakutsitako bataio ondoren: Nazaretoko Jesusena, alegia, Jaungoikoak Espiritu Santuaren indarrez gantzutua; eta on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zena: Jaungoikoa Harekin bait zegoen».

**Aleluia** (Ik. Mt 9, 6)

A - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia.

Zerua zabaldu zen eta Aitaren ahotsa **entzun** zen:

«Hau da nire Semea, nire **maitea**.

Entzun ieza**io**zue». R/.

**Ebanjelioa** (Mk 1, 7-11)

## Homiliarako argibideak

*On eginez igaro zen*

Ospakizun garrantzitsuek hasierako gertakari bat izaten dute oinarrian; gertakari horrek hasiera eman bakarrik ez, baizik eta gero etorriko dena nolako izango den adierazi ohi dute askotan. Halaxe gertatu zen Jesusen ministeritza publikoaren hasieran bataioarekin. Ordurarte lasai bizi izan zen Nazaretoko herrixkan. Baina Joan Bataiatzaileak hots egin zuen Jainkoaren Erreinuak, Jesus ere bidean jarri zuen, bizimodu berri baten zerbitzura. Bere bokazioaz jabetu zen. Ez zen bulego batean eraturako egitasmoa, bataiokoa agerian jarritako Jainkoaren egitasmoa baizik. Aitak berak era nabarmenean agerian jarri zuen: Zu zara nire Seme maitea (*Ebanjelioa*). Seme izatea, bidalia izatea da, eginkizun batera bidalia, Aita da eginkizuna ematen duena, mundua salbatzeko eginkizuna ematen duena, hain zuzen ere.

Familiaren betiko loturak gainditu, jabegoari eta bizimodu tradizionalari buruzko irizpideak hautsi eta Jesusek Erreinuari zabaldu zion bihotza, gero zoriontasunetan agerian jarriko zuen Erreinuari zabaldu ere. Etxeko familia utzi zuen, Aitaren nahia betetzen dutenekin bere ondoan familia berri bat eraikitzeko. Seme izatearen kontzientzia horrek bizitza osoan lagundu zion Jesusi, bereziki heriotzako orduan (*Lehenengo irakurgaia*). Aitaren eskuetan jarri zuen bere espiritua. Bataioan ikusi zen Aitak emandako eginkizunerako gai egin zuen Espirituaren gantzutzea. On eginez igarotzea da kontua, gaitzak zapalduzik zituenak askatuz igarotzea (*Bigarren irakurgaia*). Jainkoaren Erreinua munduan txertatua zegoela adierazi zen Jesusen bataioan eta Pazkoa aurreratu zen, irteera berria, bekatuzko mundu zaharra alboan utzi eta Erreinuaren berritasunari bihotza zabaltzea, alegia.

Erreinuaren etorrera prestatzeko bataioa hartzen zuten bekatariekin bat egin zuen Jesusek, munduaren bekatua bere gain hartu zuen, bekatu hori bere heriotza eta hilobiarekin suntsitzeko. Uretan murgiltzeak heriotza eta hilobiratzea irudikatzen ditu. Uretatik ateratzeak, berriz, piztuera. Horregatik, uretatik ateratzean gertatu zen Espirituaren eta Aitaren agerpena, zeruak zabaltzearekin batera. Munduan txertatu zen, era honetan, Erreinua; Semearengan seme-alaba egin gaituen Erreinua.

Kristauon bataioa ere ezaugarri profetikoa da, baina zentzu kristologikoa duen ezaugarria. Uretan murgiltzean, fededuna Kristoren heriotzan murgiltzen da. Jesusekin hiltzen da bataioa hartzen duena, mundu honetako bekaturako eta gaitzerako hiltzen. Bizitza Jainkoaren dohain den bezalaxe, bataioan gertatzen den bizitza berria Jainkoaren dohaina da eta gauza guztiak berritzen dituen Espirituaren dohaina. Jesusengan Jainkoaren seme-alaba gertatu gara eta betiko biziaren oinordeko ere bai. Bizi berri hori da oraingo gure izatearen hazia eta Jesusek, bereziki, zoriontasunetan aldarrikatutako berri onaren bizipenean jartzen da agerian.

Zer gertatu da gure bataioarekin? Behar bada ez gara oraindik konturatu ere egin, nahiz eta urtero berritzen ditugun bataioko promesak Pazko Gaubeilan. Bataioak egiten gaitu Jainkoaren seme-alaba, Mariaren seme-alaba, Eliza Amaren seme-alaba. Ez gabiltza berandu, beti da garai egokia Jainkoaren seme/alaba izatearen edertasunaz jabetzeko. Dohain miragarria da hori, eta gure eginkizunarentzat bultzada ere bai. Jainkoaren Erreinua munduan ahalik eta gehien zabaltzea da gure eginkizuna. Seme-alaba garelako parte hartzen dugu Aitak familia osoarentzat prestatzen duen otorduan. Eskerrak eman diezazkiogun Aitari, Seme maitearengan gu ere maitatu gaituelako.

## Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, dei egin diezaiogun bataioa hartuz gizakia berritu eta gure bataioa santutu nahi izan zuen Salbatzaileari:

*Erantzuna:* **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua.**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-rri ho - nen oi-hu - a.

- Kristok, Jainkoaren zerbitzariak, Aitaren maiteak maitasunez begira diezaien bataioa eta sendotza hartzeko prestatzen direnei, edo heuren haurrak prestatzen dituztenei. Egigun otoitz.
- Kristok, herri guztiak zuzentzeko Jainkoak Aukeratuak, Jainkoa bihotz zintzoz bilatzen dutenak argi ditzan, Aitaren ahotsa entzunarazi diezaien eta bataioko uretara zuzen ditzan. Egigun otoitz.
- Kristok, Espirituak Gantzutuak, Aitaren asmoarekin leial izan zenak, eman diezaiela bere ametsak zailtasunez beteak ikusten dituzten etorkinei eta beren herritik urruti bizi direnei, ez etsitzeko adorea. Egigun otoitz.
- Kristok, Seme maiteak, Jordanen bataioa hartu nahi izan zuenak, lagun diezagula bataioaren handitasuna eskertzen, Jainkoak gizakioi digun maitasunaren dohain denez. Egigun otoitz.

Jainko errukitsua zure ahotsa entzunarazten duzu bataioko urtean eta sendotzako gantzutzean, entzun gure otoitzak eta emaeizu bataiatu guztiei bataioko hitzak leial betez fedearen testigu ausart izatea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

**Prefazioa: Jaunaren Bataiokoa.** (*Meza-liburua: 146. or.*)

**Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Jaun errukitsua,  
dohain santu hauez aserik apalik dei egiten dizugu:  
egin gaitzazu zure Semearen hitzaren entzule zintzo,  
izenez eta izatez zure seme-alaba izan gaitezen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena**

**Jauna zuekin.** R/. Eta zure espirituarekin.

**Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.**

*(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)*

**Entzun, Jauna, zeure familia honen otoitzak  
eta eman zeure kemena apalik eskean ari zaizunari,  
beharrezko baliabideez indarturik,  
zure izenaren aitormenean iraun dezan.**

**Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.** R/. Amen.

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:  
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak.** R/. Amen.

**Zoazte Jaunaren bakean.** R/. Eskerrak Jainkoari.